

JESUSEN JAINKO-BIZIKIZUNA

Gai onen asikeran itaundu daiteke ea Jesus istorikoa utsik gogoan izango dan ala ebanjelioak eta Alkartasun Barriak aurkezten daben Jesus Pazko-ondorengoa. Jesus istorikoa be Pazko-ondorengo argitan ikusten eta azaltzen da, eta exegesiarentzat ez da erreza izaten batari eta besteari dagokiozan gaiak bereiztea. Exegesiarentzat, istoriarentzat eta apologetikarentzat berezkoa eta bearrezkoa da ikerketa orretan aalegintzea. Kristau sinesmen bizikizunarentzat be ez da garrantzi gitxikoa ikerketa ori, Jesus istorikoaren bizitza erreala ezin daiteke sinesmerantzat indiferentea izan. Jesusegaz geroago gertatzen dana ezin daiteke “gerokoa” bakarrik izan, Jesus istorikoaren bizitzan oiñarritu bakoa. Ebanjelioak ez dauke gure gaurko istoria ardura bardina, baiña Pazko-aurreko datoak eta ondorengoak naastatzean bertan be, berezkozat dauke Jesus bat bera dala. Bat beraren bizitza, izakera eta mezua emon gura dabez. Pazkoaren argitan: Pazko bizikizunak emoten dauan ulermenez, Jesus istorikoa bizipen orren ikuskizunez jantzi, garatu eta aktualizatuz (Jesus istorikoak Pazko ondoren “berba” egiten jarraitzen dau, bere izakera salbatzaillea garatzen siñestedunen artean). Garapen au, baiña, ez da eurentzat sorkuntza askea, Jesus istorikoa bera baiño, beroni lotua.

Badaiteke lur onetako Jesus ori, areganaiño eldu daiteken eñean, itxura baten, apala eta oso gizazkoa izatea, gerokoaren aldean (eta gure erlijio asmakizun eta gurariekin alderatu ezkerro). Baiña gizatasun apal ori da Jaungoikoaren lekua eta gerokoaren gunea. Gerokoa be (Pazko bizipenean artua) Jesus istorikoagandik, lurtarragandik ulertu bear da, iñoz be a aaztu barik.

Guk emen leenengo da bein Jesus istorikoagan jarri nai ditugu begiak. Gure asmu osorako (kristau fedea ulertzeko) ez dogu Pazko ondorengo bizikizuna aaztuten, leenengo kristauen fede kontzientzian agertzen dan Jesusen irudia. Baiña Jesus istorikoagandik asi nai dogu, lortu daiteken giñoan, bere gizatasun istorikoa guretzat beti da asikera eta. Pazko bizipena be (ikasle eta leenengo kristauen bizipena) istorikoa da, baiña ain zuzen be ikasleena, lekukoena.

I. Aitaren bizikizuna

1. *Aita izena*. "Aita" irudia, Jainkoa izendatzeko, ezaguna da erlejiño kondairan. Berezko irudia dogu "egillea" aipatzeko, aginpidea eta ordena, ardurea, zor jakon begirunea, eta bildurra.

Jesusek Aitagazko artuemona erlijio judutarraren barne giroan bizi dau. Alkertasun Zaarrak ezagutzen dau "Aita" irudia. Jainkoa Israelen aita da, erriaren aita. Aukeratu dauan erria dala (Ex 4,22; Os 11,1; Jer 31,9), ez sortu egin dala. Istorian zear gertatzen dan aitatasuna da, beraz, eta aukeratzen dauan Jaungoikoa askea da egite orretan eta traszendentea, ez mailla berekoa edo antzekoa. "Zu gure aita zara" otoiiz egin daikeoe (Is 63,15; 64,7). Berariz, umezurtzen aita da (Sal 68,6). Baiña konparaketa dala geiago, izena baiño, esan daiteke. Eta bakoitzaren artuemona ez da ain argi agertzen, kolektiboa, erriarena baiño.

Alkartasun Barrian Jainkoa deitzeko leenengo izena "Aita" dogu. 170 bider aurkitzen dogu ebanjelioetan Jesusen aotan. Erabilpen au ez da mitikoa, metafora edo konparaketa, Jainkoa deitzeko berezko izena baiño. Izen normal oizko biurtu da ebanjelioetan.

Ebanjelioen grekerako texto jatorrean bein "Abba"itz aramearra agertzen da (Mk 14,36). Eta Alkartasun Barrian beste birritan agertzen da era aramear ori (Gal 4,6, Erm 8,15). Ez da eza gutzen, aldiko erlijio literaturan, Jaungoikoari deitzeko erabillita. Bere jatorria umeen izkera danez (gero beste konfiantzazko eta begirunezko giza-artuemonetan erabillia izan arren) etxekotasuna eta konfiantza adierazteko eta gogorazteko egoki da.

Jakiña da J. Jeremias-ek gai zeatz oni buruz ikertutakoa: Jesusek itz au erabilli ebala Jaungoikoari deitzeko, orretan originala izanez¹. Ikerlari onen ondorioak gaur egunean oso neurritz onartzen dira, beti be Jesus istorikoaren eta Pazko-ondorengo kristau komunitadearen izkera ziurtasunez bereiztea zailla dalako. Alan be, ziurrena da Jesusek erabilli ebala aramear itz berezi ori; eta batez be, Jaungoikoagaz aparteko artuemon barrukoi eta urbilla izan ebala².

Alkartasun Barriak "Aita" izena oparo eta berez erabilteak au adierazoten dau: Jesusen inguruan (Jesus istoriko eta Pazko-ondorengoaren inguruan) aldakuntza guztizkoa gerta dala. Jakiña, izenaren erabilpen utsak, adierazgarria izan arren, ez dau agertzen erlaziño orren barrua. Au da, itz ori Jesusen irakaskintzaren eta egiteen ingurunean, aren bizitzaren ingurunean ulertu bear da. Orregaitik Jesusen Aitagazko artuemonera batez be zearka urreratzen gara. Irakatsi eta egiteok, baiña, Erreiñuaren serbitzuan dagoz. Aita eta Erreiñua dira Jesusen berba biak.

¹ J. JEREMIAS, *Teología del Nuevo Testamento I. La predicación de Jesús*, Salamanca 1993, 83 j.

² J. SCHLOSSER, *El Dios de Jesús*, Salamanca 1995, 209 j.

2. *Erreñua*. Erreñuaz jarduten dogu Jesusen Aitagazko bizi-penean zelanbait sartzeko. Jesus Erreñuagaitik bizi eta ilten da. Esaten eta egiten dauana Jaungoikoaren agerpena da, eta, batera, berak Aitaganako barne-jarrera zelan bizi dauan agerzen dau.

“Epea bete da eta Jaungoikoaren erreñua ur dago; biotz-barritu zaiteze eta siñistu Barri Ona” (Mk 1,15). Zer zan Jesusen asmuetan (eta Alkartasun Barri guztian) erreñu au ezin daiteke zeaztu, baiña asmatzen daikegu aren norantzakoa.

a) *Jesusen irakatsietan*. Bereziz aipatu bear da emen Mendiko itzaldia, Erreñuaren norantzakoa margozten dauanez: zoriontasunak (Mt 5,3-11); senideen arteko arremonak (Mt 5,21-25); etsaien maitasuna (Mt 5,43-48). Era berean aipatu bear da azken auziari buruzko irakatsia (Mt 25,31 j). Au Mateorena bakarrik izanda be, Jesusen beste irakatsi eta egiteekin bat dator.

Erreñuazko parabolak argitzen dabe Jaungoikoaren aurpegia: ardi galduaren parabola (Mt 18,12-14; Lk 15,4-7; seme galduarena (Lk 15,11-32): Lukasena bakarrik izanda be, emoten dauan irakatsia ebanjelio guztikoa da. Azken orduko langilleen parabola (Mt 20,1-15).

b) *Jesusen egiteetan eta bizieran*. “Tripazain eta mozkorra, zergalari eta pekatarien adiskidea”, esan eutsoen (Mt 11,19). Ebanjelioetatik ataraten dan Jesusen irudi orokorrak gizaki oneek artzen ditu aparteko eraz bere adiskidetasun eta ongurean: zergalariak, emagalduak, samariarrak, geixoak, alargun eta umerzurtzak, ezjakiñak, jente xeea eta txiroak, jentillak³.

Jesusen bereizgarrienetariko bat zergalari eta pekatariekin jatea dogu, onek esan nai dauan berezko giza urbiltasunaz;

³ J.I. GONZALEZ FAUS, La humanidad nueva. Ensayo de cristología, 2ª edición, Burgos 1975, I, 88 or.

baña, gainera, Jesusentzat maaia eta alkarrekin jate au Erreinuaren sinbolo da. Persona talde orreek oso diferenteak dira alkarren artean. Apostolu eta ikasleen taldea, esate baterako, edo umeak, eta erri xeea orokorki. Ez dira marjinatuak danak. Baiña bai geien baten ezinduak edo baztertuak, "txikiak".

Baztertu eta geixoenganako kera au Jesusek bere misioaren ezaugarritzat jarten dau: "Itsuak ikusi egiten dabe eta errenak ibilli, legenardunak garbi gelditzen dira eta gorrak entzun egiten dabe, ildakoak biztu egiten dira eta beartsuei barri ona iragarten jake" (Mt 11,5-6). Ez da gogoia millegro miragarrian bakarrik jarri bear, eta bearbada ez leenengo ta bein be; no-rentzat dan barri ona da garrantzitsua: barri on iragarria eta emona. Jesusen inguruan gizaki jausiarentzat itxaropena eta bizia sortzen dira. Aren ondoan sendatu egiten da eta giza duintasuna berreskuratu.

"Larunbata gizakiaren onerako egin eban Jaungoikoak eta ez gizakia larunbataren onerako" (Mk 2,27), edo "larunbatez zer dogu legezko, on egitea ala txarra egitea, bizia salbatzea ala kentzea?" (Mk 3,4). Gizakia da, beraz, eta geien bear dauan gizaki baztertu eta birrindua, legearen zentzu eta arrazoia, eta gizaki au Jesusen ardura guztia.

Jesusek onela jokutzen dauanean, eta irakatsien bidez bere jarduera eta pentsakera aldezten dauanean, azken baten bere Jainko bizikizuna agertzen dau : olakoa da Aita, onela jarduten dau Aitak, oneek dira Aitaren egiteak.

Zein izan zan leenengo, Aitaren, Abbaren bizikizuna ala Erreinuaren esperientzia? Abba-ren bizikizunetik zabaldu zan Jesusen kontzientizan Erreinuaren urbiltasuna, ala au asmatu eban batez be leenago, eta onen barruan eta onen iturri lez izan eban Aitaren bizikizuna? Ezin daiteke erantzun ziurrez erabagi. Baiña, dana dala, Erreinuaren bizikizunean beti da garrantzitsuena Aitaren bizikizuna: Erreinuaren Aita agertzen da,

Erreiñua Aitagandik da Erreiñu. Bestea be egia da: nor dan Aita Erreiñuan agertzen da.

Jesusen kontzientzia Aitaz beterik dago (Erreiñuko Aita). Orregaitik tradiziozko otoitez gaiñera, orduak (Mk 1,35; 6,46), eta gau osoak (Lk 6,12) igarotzen ebazan otoitzean, bakarrik.

“Gure Aita” otoitzak erakusten dau Jesusen kontzientzian Aita eta Erreiñua bat eginda egozala, Erreiñua Aitaren maitasun eta ontasunaren indarra eta errealdadea zala.

II. Seme kontzientzia

Jesus Jainko Seme dala siñisteak (zentzu berezian) prozesoa izan dau, istoria, Jesus istorikoagandik asi, berbizkunde bizikizunetik zear Alkartasun Barrian eta Eleizaren leenengo aldie-tan. Guk emen Jesus lurrekoagana urreratu nai dogu.

Seme sentitzen zala, eta indartsu, argi dago, Aitaren bizikizunaz esandakotik. Aitaren bizikizuna eta seme kontzientzia korrelatiboak, alkar-lotuak dira. Baiña zelan sentitzen seme? Noraiño?

Izendatu daitekezan bideak: a) Aren itzala, aginpide morala: “Zer da au, irakaspen barria, aginpidez emona!” (Mk 1,22.27). Bere irakaspena Alkartasun Zaarraren aurrez-aurre jarten dauanean: “Baiña nik diñotsuet” (Mt 5,22.28). Ez da agertzen, profeten erara, “Jaunak diño” esaten.

b) Berari jarraitzeko deia. Bera da deitzen dauana (Mk 3,13), eta dana itziz jarraitu bear jako (Mk 10,28), bizia arriskuan jarritz (Mk 8,34). Erreiñuaren serbitzurako, Aitaren urbiltasuna iragarteko eta emoteko; baiña Jesusengandik asten da eta beronen inguruan.

c) Aipatu egiten ditugu bakarrik esakune oneek: “nire Aita” (Mk 14,36 par; Mt 11,25 par), eta “zuen Aita” (Lk 6,36; 12,30.32) edo “zuen Aita zerukoa” (Mk 11,25 par; Mat 23,9).

Gure asmurako ziurtasun gitxiagoak dira euren argitasun eta zeaztasunean, ain zuzen be geroagoko bereizkuntzak daitekezan itxura dabelako.

- d) Bide eta zeaztasun oneen azpian, euren iturri lez, Aita-Abbaren bizikizuna dago, eta Erreiñuarena. Aitaren urbiltasuna asmatzen eta bizi dau, eta urbiltasun ori gorpuztu nai dau lurrean (Erreiñua ezarri). Jesusen aginpide morala Aitaren eta Erreiñuaren bizikizunak sortzen deutson indarra da. Beraz, Jesusek, besteekaz alderaketarik egin barik, eta egin bear barik, Erreiñuaren, bere eginkizun osoaren iturritzat bizi dau Aitaren bizikizuna. Iturri-bizikizun orretan gertatzen da geroagoko kristologiak garatuko dauana.

Gizatasun osoan bizi izan eban Aitagazko bizipena, au da, siñismen eta itxaropen bidean. Giza izatearen bidea. Izate istorikoaren bidea. Bide ori azkeneraiño eltzen da: "Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa, zergaitik itzi nozu bertanbeera?" (Mk 15,34). Jesusen seme-bizikizuna ez da mitikoa, gizatasun istorikoan, izate errealean gauzatzen dana baiño. Alderdi onetatik, gizatasun osoa (lurreko apaltasuna) ez da Jainko-semetasun gitxiagokoa. Semetasun osoa ez dago gizatasunaren aurka: Jesusen Seme izatea gizatasun orretan gertatzen dan Aitaren esperientzian datza.

III. Espirituaren indarrez.

Itun Barriak Espiritua Jesusen berbizkundeagaz alkartzen dau: "Giza jatorriz Dabiden azitik jaioa zan; baiña Espiritu santu-egillearen aldetik Jaungoikoaren Seme aaltsu egiña izan zan illen artetik biztutzean" (Erm 1,4). Joanek onela laburtzen dau: "Artean ez egoan Espiriturik, Jesus ez zalako oraindiño aintzatarra jaso izan" (Jn 7,39). Emendik, baiña, errekuperatzen da Jesusen bizitza osoa Espirituaren eragiñerako: 1. Berbizkunde ondoren kristau komunitadeak Jesusen Espiritua artzen dau, eta Jesus bera

Espirituan bizi da orain komunitatean. 2. Espiritua agertzen da Jesusen bateoan berau guztiz artzen eta betetzen (Mk 1,10), Erreiñua zabaldu dagian. 3. Jaiotzatik, sendotuz joian Espirituan (Lk 2,40). 4. Espiritu Santuaren egitez sortua izan zan (Lk 1,35). 5. Betikotasunean Aitagaz egoan (Jn 1,1)⁴.

Alkartasun Barria Jesusen Espirituak sortzen dau eta onen espazioa da. Ori adierazoten dabe Joanen aurreko itzak: Jesusen berbizkunde ondorengo bizikizunaz konparaturik, artean ez egoan Espiriturik. Orregaitik, Joanek berak aurkezten dau Jesus, onen bizitzan, Espirituz beterik (Jn 1,32; 3,34, eta-bar). Ez dago orretan kontraesanik. Kontraesanak ulerkeria esentzialista eta fundamentalistatik sortzen dira. Biblia, oster, existentzi ikuspuntutik irakurri bear da: zein arazori erantzuten jakon, zein fede-argi emon gura dan. Irakurketa esentzialistak eta fundamentalistak kontaezinala buruauste sortu ditu, iñora ez daroenak, eta fede-mezua alperrik galtzen dabenak. Jakiña, gauzak ez dira ain errezak, ez gitxiago be; ez dago "existentziarik" esentzia barik, eta guk be ez daukagu buruausteen urtenbidearen giltza; baiña egia da existentzi ikuspuntuak ainbat gauza argitzen dituana.

Zelako Espiritu-bizikizuna izan eban Jesusek lurrean bizi zala? Jesusen bateoari buruzko erlatoa bearbada bere bizitza osoari dagokio, batez be Erreiñuaren serbitzuko itz, egite eta bizerari.

- a) Alkartasun Zaarrean Espiritua Jainkoaren arnasa sortzaillea da, profeten indarra. Berak eraldatuko dau basamortua, zuzentasun eta eskubidearen leku biurtuz (Is 32,15). Bizi barria emongo deutso erri illari (Ez 37,1-14), biotz barria eratu-ko deutso (Ez 11,19). Azken aldietarako espirituaren isuria itxaroten da "aragi ororentzat" (Jl 3,1).

⁴ J. MOLTMANN, *El camino de Jesucristo*, Salamanca 1993, 116-117.

- b) Giro onen barruan, Jesusek Aitaren barrutiko bizikizuna eta Erreinuaren urbiltasuna Espirituaren isuritzat bizi ditu. Erri xee eta beartsuagan bere berbeak dauan indarra, eragiña (aginpidea) eta bizi-itxaropena Espirituaren eragintzat asmatu bear ditu. Geixo eta baztertuak beragandik artzen dabazan osasuna, duintasuna eta bizi-poza (Erreinuaren ezaugarriak) Espirituaren bizi barrizat asmatu bear ditu. Au da: Jesusek Aitagandik datorren eta beragandik edatzen ikusten dauan bizi-indar ori Espiritu bizikizuna dau.

Berbizkunde bizipen indartsuaren ondorioz prozesoa sortzen da kristau kontzientzian Jesusen bizitza eta izatea ulertzeko. Bizipen ori Espirituaren bizikizun berezia dala ikusi dogu. Era berean, batera, Espiritua be argiago ulertzen da aurreraide orretan. Fede sakontze eta biltze onen frutua dogu Irutasun Santuaren sinismena eta irakatsia. Orrela, asikeratik, Eleizaren kontzientzia sortzen da. Kontzientzi ori geien erutzen dauan argia Jaunaren presentziaren ziurtasuna da Espirituaren bidez.

Luis Arostegi